A continuación, pasa a informar la concejala Sra. Azanza, que traslada a los corporativos la reunión que mantuvo el día 6 de agosto en Ezkaroz con Jesús María Rodríguez, Director General de Administración Local y Despoblación y la Directora General de Transporte para informar sobre la nueva licitación de las líneas regulares que va a realizar el Gobierno de Navarra, lo que supone una modificación de los servicios, si bien, en con la nueva propuesta Auritz/Burguete sale beneficiada, ya que desaparece el carácter estacional del autobús, por lo que mostró su conformidad.

La Corporación se da por enterada.

## **13.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

No se formulan.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 20:30 h. del mismo día, se levanta la sesión, de lo que doy fe.

Aurizko Udaletxean, 2024ko abuztuaren 22an, 19:00etan, Udala bildu zen bilkura arrunta egiteko. Bertaratuak: Ana Azanza Burusco, José Irigaray Gil, Andrea Juandeaburre Serna eta Eder Martínez de Miguel zinegotziak, bilkura buru alkatea, Unai Irigaray Osés izan zen eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure.

## **1.- 2024ko EKAINAREN 11ko eta UZTAILAREN 30eko BILKUREN AKTEN ONESPENA**

Udalbatzak erabaki du aho batez 2024ko ekainaren 11n eta uztailaren 30ean egindako bilkuren aktak onartzea.

## **2.- 2024ko EKAINAREN 8tik ABUZTUAREN 20a ARTE ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEN INGURUKO INFORMAZIOA**

Irigaray Oses alkateak 2024ko ekainaren 8tik abuztuaren 20ra eman dituen ebazpenen gaineko informazioa eman du, horiek bilkurako expedientean daude eta udalkide guztiak jakitun dira.

### **3.- HASIERA BATEAN ONESTEA 2023KO KONTUEN TXOSTENA.**

Udala Kontuen Batzorde Bereziaren lanak eginez ari da.

Idazkariak, Ezcurra andreak, hitza hartu du eta 2023ko kontuen txostenaz honako informazioa eman du:

663.454,56 euroko aintzatetsitako obligazio garbiak, 721.252,33 euroko aintzatetsitako eskubide garbiak eta 296.217,68 euroko gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina daudela. Era berean, 2023ko abenduaren 31n kutxan 320.354,57 €-ko izakinak zituen arkeo-aktaren berri eman da, bai eta 2023ko abenduaren 31n 216.876,46 €-ko zor biziaren berri ere. Azkenik, adierazi du aurrekontuaren gauzatze-maila % 74,52koa izan dela, eta betebeharren % 86,33 ordaindu dela, finantza-iraunkortasunaren eta aurrekontu-egonkortasunaren printzipioak betez.

Horiek horrela, 2023ko Kontuen Txostena ikusita, Udalbatzak erabaki du aho batez:

1.- Kontuhartzaitetzak egindako "Kontu Orokorra" onartzea

2.- "Kontuen Batzorde Bereziaren Txostena" onartzea eta hora onesten duen erabakia iragarki oholean paratzea 15 egun balioduneko epean, Nafarroako Toki Ogasunen Foru Legearen 242.3 artikuluaren arabera.

## **4.- MOLINALDEAN, GAUR EGUN KUATROPEA, 5 POLIGONOKO 153 LURZATIAREN ALDAKETAREN ERABAKIA**

Irigaray Oses alkate jaunak azaldu du Udalaren betebeharra dela, Nafarroako Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua arautzen duen 280/1990 Foru Dekretuaren 125. artikulua: "Beren ondareko ondasun eta eskubideak kontserbatu, defendatu, berreskuratu eta hobetzen direla zaintzea, eta ondasun eta eskubide horiek defendatzeko beharrezkoak diren ekintzak gauzatzeko betebeharra izatea".

Era berean Udalak onetsitako herri aprobetxamenduak arautzen dituen Ordenantzaren "7. Artikuluak honakoa dio: "Aurizko Udalak herri-ondasunak kontserbatu, defendatu, berreskuratu eta hobetzeaz arduratuko da, eta horien kalterako den edozein pribatizazio-saioren edo ekintzaren aurka egingo du". 8. artikuluak honakoa dio: "Aurizko Udalak bere kabuz berreskuratu ahal izango du, edozein unetan, herri-ondasunen edukitza, aldez aurretik letraduak txostena eginda eta interesdunari entzunda, eta akzio zibilak sustatzea, herri-ondasun horiek berreskuratzeko eta defendatzeko beharrezkoak direnean. "

Alkate jaunak argi utzi nahi du, aztergai dugun kasuan, desadostasuna ez dela inola ere egungo katastroko titularren edo haien arbasoen ekintzen ondorio, baizik eta indarrean dagoen katastroa ezartzean egindako akats batena.

Erantsi du aldatzeko proposamena Herrilurren Atalak 2014an emandako txosten batean oinarritzen dela.

Gaia aspaldikoa denez, hitza eman dio Irigaray Gil zinegotziari, izan ere berak gaia landu du.

Irigaray Gil zinegotziak azaldu du gai hori azken legegintzaldietan mahai gainean egon dela eta konpontzeko dagoela; bere ustez, bi desadostasun daude: batetik, katastroa ezartzean egindako akatsa, eta, bestetik, edukieran egindako akatsa. Zehaztu du gaia azaltzeko behin-behineko azalerak erabiliko dituela eta behin betikoak izango direla dagokion jasoketa topografikoak markatuko dituenak.

5 poligonoko 153 lurzatiak (Molinaldean, gaur egun Kuatropea) duen azalera gaur egun 28.938,07 m<sup>2</sup> -koa da eta 1962ko katastroan 27.000 m<sup>2</sup> zituen, hortaz, 1.938,07 m<sup>2</sup>-ko differentzia dago.

Lursaila lurzatien bateratze prozesutik kanpo gelditu zen eta Erasoen Maiorazkorena zen. 1962an Salvador Goizueta Politena zen eta Jose Urtasun Gortarik eta Anastasia Reca Garatek erosи zuten. Ez da katastroko aldaketarik ageri.

Herrilurren Atalaren 2014ko txostenaren arabera, D esparrua aldatu behar da, 856,57 m<sup>2</sup> baititu, baino ez da aipamenik egiten katastroetako 1081,5 m<sup>2</sup>-ei buruz

Pentzearen mugak, 1927, 1945, 1956 eta 1966ko hegaldien arabera, ez dira aldatu, eta indarrean dagoen katastroa ezartzean soilik aldatu da forma; izan ere, iparraldean, gutxienez mende bat baino gehiagoko antzinatasuna duen hesia gainditu du. Eremu hori aldatzea proposatzen da, neurtu ondoren, Herrilurretako Atalaren txostenaren oinarri diren argudioekin bat.

Metroen katastro-aldeari dagokionez, Irigaray Gil zinegotziak uste du gainerako 1081 m<sup>2</sup>-ak ezin direla erreklamatu eta edukieraren akatsa dela. Bere iritzia honako argudioetan oinarritzen da:

- F- Gaur egungo neurtzeko metodoak lehenagokoak baino zehatzagoak dira.
- G- Hegaoaldeko muga beti Urrobi ugaldea dela aipatzen da. Ibaia aldakorra da bere ibilbidean, nahiz eta ez dirudien. Gertaera hori izan zen Mendabia eta Agoncilloren arteko auziaren argudioetako bat, Mendabiak irabazi zuena.
- H- Bere garaian, pentzeak Larrañetatik Soroluzeara zihohan bide-zortasuna zeukan, pentze .honetatik abiatuz eta Molinaldea parajeko pentze guztiak zeharkatuz. Zortasun-bide hau antzinako hegaldi historikoetan eta katastro-planoetan ikusten da, baina ez da ezagutzen 1962ko katastroak nola hartzen zuen zortasun hori katastroaren arabera.
- I- Ondoko pentzea (5 poligonoko 150 lurzatia lurzatien baterakuntza egin aurretik) Dorrekoarena zen eta lurzatien baterakuntza egin zenean egungo 5 poligonoko 306 lurzatira pasatu zen. Haren jabeak Benito Agorreta Ibarrola, Consuelo Erdozain Urtasun eta Luis Iribarren Agorreta izan ziren eta Juan Manuel Azanza Buruscok erosи zuen. Xede dugun lursailaren antzeko ezaugarriak zituen. Hau da, ibaiarekin muga egiten zuen, hesi batetik abiatzen zen, zeina, aipatzen ari garen pentekoarekin batera, lerro etengabea osatzen baitzuen, eta bide-zorra ere bazuen.

Lurzatien baterakuntzan sartu zen. Katastro zaharrean (1962) 21.700 m<sup>2</sup> zituen eta berrian (1991) 22.735,56 m<sup>2</sup>. Lurzatien bateratze-prozesuan, ekarpent-eremutzat jo zen katastro-azalera handiena, eta zuzentzat jo zen; izan ere, bateratze-prozesuan parte hartu zuen teknikarietako baten arabera, mugak hain definituta zeudenez eta mugakideen artean desadostasunik ez zegoenez, horrelakoetan azaleko akatsak zirela uste zuten.

- J- Herrilurretako atalaren txostenak ez du inolako eragozpenik jartzen metro horiei buruz, hesitik ateratzen direnei baizik, eta hori da zuzendu nahi dena.

Hortaz, bere ustez, edukiera-akats baten aurrean gaude, Udalak erabiltzen duen katastro-dokumentazioan behintzat. Hori dela eta, Aurizko Herrilurretarako hirigunearekin muga egiten duen hesitik kanpo geratzen diren metroak berreskuratzea proposatzen du, hesiaren landaketa 1962ko katastro-planoak baino askoz lehenagokoa baita eta bertan ehun urtetik gorako zuhaitzak baitaude.

Irigaray zinegotziak azaldu dituen argudioekin ados egonik, udalbatzak erabaki du aho batez:

- 1.- Herrilurretako Zerbitzuak emandako txostena berresteak.
  - 2.- Jasotze topografiko bat eskatzea, egungo D esparrua aldatzeko neurri zehatza emango duena, pentzea historikoki ixten duen hesiak markatzen duen lerroa kontuan hartuta, Aurizko Udalaren herrilurretako lurzatia izatera pasatuz.
- Erabaki hau egungo katastroko titularrei igortzea, irekitako espedientearekin batera, eta entzunaldia ematea, hamar eguneko epean egokitzat jotzen dituzten datu eta agiriak adierazi edo aurkez ditzaten.

## **5. UDAL GIMNASIOAREN ERABILERA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA. HASIERAKO ONESPENA.**

Irigaray Oses alkate jaunak jakinarazi du lokala egokitut egin dela gimnasioarentzako, eta, ikasturte berria hasi dela ikusita, gimnasioaren erabilera arautzeko ordenantza hau onartzea proposatu du. Hona hemen ordenantza:

### **AURIZKO UDAL GIMNASIOAREN ERABILERA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA**

#### **1. Artikulua.**

*Ordenantza honen xedea da Aurizko Udal gimnasioaren eta haren instalazioen erabilera eta funtzionamendua arautzea. Gimnasioa Auritzen dago, San Nikolas karrikan, udaletxeko beheko solairuan.*

*Aurizko udal gimnasioak bi gela ditu, batean makinak daude eta bestea taldeko ariketetarako edo makinarik gabeko ariketetarako da.*

#### **2. Artikulua. Gimnasioaren erabilera.**

*2.1. Gimnasioa kirol hauetarako erabiliko da: GAP, pilates, yoga, makinekin egiteko ariketak, spinning, zumba, aerobic eta antzekoak.*

*2.2. Instalazioak ahalik eta egoera onenean egon daitezen, gimnasioa erabiltzen duten pertsonek material eta oinetako egokiak erabili beharko dituzte kirol modalitate desberdinak praktikatzeko*

*Debeku da animaliak sartzea, jarduerak egitea eta instalazioak honda ditzaketen materialak erabiltzea, hala nola, bizikletak, monopatinak, ibilgailu motordunak eta antzekoak.*

*2.3. Debekatuta dago instalazioetan jatea eta edatea, alkoholik gabeko edariak izan ezik (isotonikoak, ura, etab.) eta, beti ere, pertsona bakoitzeko botilatxo bat emanen da.*

*2.4. Makinak erabiltzeko toallak edo makinak estaltzeko elementuak erabili beharko dira. Erabili ondoren, lehortu egin behar dira.*

*2.5. Debekatuta dago gimnasioa bilera informaletarako erabiltzea.*

### ***3. Artikulua. Gimnasioa erabiliko duten pertsonak/entitateak.***

*3.1. Auritzen erroldatutako pertsonak.*

*3.2. Auritzen beren jarduerak herriko biztanleei zuzenduta garatzen dituzten elkartea edo erakundeak*

*3.3. Auñamendi Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitatea: Mankomunitatetik antolatutako jarduerak egiteko. Udalarekin adostuko da orduen erreserba.*

### ***4. Artikulua. Sarbidea.***

*4.1. Udalak erabiltzaileen esku jarriko du gimnasioan sartzeko sistema edo modua, eta giltza edo beste formaturen bat izan daiteke (APP/Txartela/Gakoa/etab). Aurrerantzean giltza deituko diogu Ordenantza honetan.*

*4.2. 16 urtetik gorako pertsonek gimnasioko giltza eskatu eta instalazioak erabili ahal izango dituzte, beti ere dauden erreserbak eta instalazioak libre erabiltzeko ordena errespetatuz.*

*4.3. 16 urtetik beherako erabiltzaileak ezin izango dira gimnasiora sartu, dagokien adinekoentzat berariaz antolatutako jardueraren baterako ez bada.*

*4.4. Gimnasioko giltza Aurizko udaletxeen jaso ahal izango da, instalazioa erreserbatzeko berariazko dokumentua bete ondoren.*

*4.5. Jarduera amaitzean giltza udaletxeen utziko da. Jendaurreko ordutegia amaituz gero, Udaleko langileek erabakiko dute itzulketa nola egin. Udalak postontzi bat jarri ahal izango du gimnasioko sarreran giltza uzteko.*

*4.6. Gimnasiiora sartzeko giltza edo mekanismoa galduz gero, Udalak erabiltzaileari kobrau ahal izango dio mekanismoaren kopia egitea.*

*4.7. Erabiltzaile bakoitzak eskubidea du Aurizko Udalaren aurrean bidezkotzat jotzen dituen erreklamazio eta iradokizunak idatziz aurkezteko.*

*4.8. Giltza besterenezina da eta erabiltzaile bakoitza bere giltzaren erantzulea da.*

*4.9. Instalazioetara sartzeko, dagozkien sarbideak/ateak soilik erabiliko dira. Behin erabilera bukatuta, argi guztiak itzali eta atea itxi beharko dira.*

#### **5. Artikulua. . Funtzionamendu ordutegia.**

*Udal korporazioak eta udal teknikariek ezarriko dituzte gimnasioaren funtzionamendu ordutegiak, eta erabiltzaileen eskura egongo dira Udalaren webgunean.*

#### **6. Artikulua. Erreserbak.**

*6.1. Segurtasuna, edukiera eta zerbitzuaren kalitatea direla eta, Udalak une bakoitzeko erabiltzaile-kopuria mugatu ahal izango du, baldintzak (erabilera-iraupena, erreserba-epeak edo antzekoak...) eta erreserba-sistemak (app-a, ohola, etab.) ezarriz, interesa duten pertsona guztiekin erabil dezaten bermatzeko moduan (errotazioa, denbora-muga, etab.).*

*6.2. Udalak beretzen gordezen du gimnasioa eta bere instalazioak berak bakarrik edo beste erakunde eta/edo elkartea batzuekin batera sustatzen dituen jardueretarako erabiltzea, baldin eta jarduera horien helburua Aurizko gizarte, kultura eta kirol garapena bada*

#### **7. Artikulua. Aplikatu beharreko tarifik ordenantza honen eranskinean agertzen dira.**

*Erabiltzaile bakoitzak hileko edo urteko kuota ordainduko du kirol instalazioak erabiltzeagatik, kuota hori hilabete naturalarekin edo urte naturalarekin bat etorriko da, hurrenez hurren.*

*Kuota ez da hainbanagarria izango eta erabiltzaileak ez du ordaindutako zenbatekoa berreskuratzeko eskubiderik izango, behar bezala justifikatutako kasu berezietaan izan ezik, horien inguruabarrik udal administrazioaren organo eskudunak baloratuko baititu. Kasu horretan, bajaren data aitortzen den hilabetea kenduta geratzen diren hilabete naturalen zenbatekoa itzuliko da.*

#### **8. Artikulua. Diziplina-araubidea: arau-haustea eta zehapenak.**

*8.1. Ondoko instalazioetan beren borondatez kalteak eragiten dituzten pertsonei gimnasioan sartzea eta erabiltzea eragotziko zaie hiru eta lau hilabete bitartean, gertaeraren larritasunaren arabera. Era berean, eragindako kalte eta galerak konpentsatu beharko dituzte, baldin eta halakorik badago.*

*8.2. Gimnasioa Ordenantza honen 2.1. idatz-zatian ezarritakoez bestelako erabileretarako erabiltzen bada, baimena emateko unean bere gain hartutako betebeharrak ez direla bete ulertuko da, eta eskatzaileak instalazioei eragindako kalte-galerak itzuli egin beharko ditu, baldin eta halakorik badago.*

*8.3. Gimnasioko giltzen kopiak egitea hutsegite edo arau-hauste oso larritzat hartuko da.*

8.4. Erreserbarik edo sartzeko baimenik ez duenari gimnasioko giltzak uztea hutsegite edo arau-hauste larritzat hartuko da.

8.5. Udal Administrazioari dagokio ordenantza honetan jasotako zehapen araubidea aplikatzea.

**9. Artikulua. Faltak edo arau-haustea.**

Hutsegite edo arau-hauste arinak dira:

Gimnasioa baimenik gabe edo erreserba ordutegitik kanpo erabiltzea, behin bakarrik hiru hilabeteko epean.

b) Instalazioetan dauden zerbitzuak behar bezala ez erabiltzea.

c) Instalazioetan kalteak edo irregularitasunak aurkituz gero, Udalari berehala ez jakinaraztea.

d) Argia ez itzaltzea instalazioetatik atera ondoren.

e) Makinak erabiltzean esku-oihalik ez erabiltzea, edo makinak zikintzea, etab.

f) Erregistroan edo erreserba-eskaeran ezarritako ordutegia ez betetzea.

-Hutsegite edo arau-hauste larriak dira:

Baimenik ez duten beste pertsona batzuei gimnasioa erabiltzen uztea, Udalak aldez aurretik ezer jakin gabe.

b) Instalazioetan, ekipamenduan edo bestelako materialean kalte larriak eragitea.

c) Ez jakinarazi giltza galdu dela

d) Hiru (3) hutsegite edo arau-hauste arin egitea

e) Falta edo arau-hauste arinengatiko zehapena ez betetzea

f) Erreserba edo sartzeko baimenik ez duenari gimnasioko giltzak uztea

-Hutsegite edo arau-hauste oso larriak dira:

d) Hiru (3) hutsegite edo arau-hauste larri egitea

b) Instalazioetan edo ekipamenduan kalte oso larriak eragitea.

c) Hutsegite edo arau-hauste larriengatiko zigorrak ez betetzea

d) Gimnasioko giltzen kopiak egitea

**10. Artikulua. Zigorrak.**

*Hutsegiteak edo arau-hauste arinak eginez gero, ezingo da gimnasioa erabili 1-4 aste bitarteko epean. Era berean, eragindako kalte eta galerak ordaindu beharko dira, baldin badaude.*

*b) Hutsegiteak edo arau-hauste larriak eginez gero, ezingo da gimnasioa erabili 4 astetik 2 hilabete bitarteko epean, larritasunaren arabera, eta 300 euroko isuna ordaintza. Era berean, eragindako kalte eta galerak ordaindu beharko dira, baldin badaude.*

*c) Hutsegite edo arau-hauste larriengatiko zehapen horietakoren bat betetzen ez bada, edota hutsegite edo arau-hauste oso larriak egiten badira, udalaren edozein kirol-instalaziotan sartzeko debekua ezarriko da 2 eta 4 hilabete arteko epean, larritasunaren arabera, eta 600 euroko isuna ordaindu beharko da. Era berean, eragindako kalte-galerak ordaindu beharko dira, baldin badaude.*

#### **11. Artikulua. Zehapen-prozedura.**

*Zehapenak ezartzeko, hala badagokio, aldez aurretik expedientea izapidetu beharko du Aurizko Udalak, Administrazio Publikoen Administrazio Procedura Erkidearen urriaren leko 39/2015 Legean eta hura garatzeko araudian ezarritako administrazio-prozeduraren arauei jarraituz.*

*Aurizko Udaleko Alkatetzak izanen du zehapenak ezartzeko eskumena.*

#### **TARIFEN ERANSKINA**

*Izena emateko kuota:*

*1.- 16 urtetik beherakoak: debekatua.*

*2.- 16 urtetik gora:*

*-Hilabeteko kuota: 15,00 euro/hilabete*

*-Urteko kuota: 120,00 euro/urtea*

*\*Ez da egun baterako txartelik edo sarrerarik emango*

Hura aztertuta, Udalatzak aho batez erabaki du hasiera batean onestea Aurizko udal gimnasioaren erabilera arautzen duen udal ordenantza, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, jende orok jakin dezan.

#### **6.- MARCELINO BOZA MARTÍNEZ (1936KO ALTXAMENDUAREN ONDORIOZ ERAILA) DUINTZEKO AKORDIOA**

Irigaray Gil zinegotziak hartu du hitza eta esan du, Orreaga Oskotz Egiarekin hitz egin ondoren, berak esan ziola Aurizko bizilagun batek zioela bortxazko lanen esparruko preso batek bere buruaz beste egin zuela, urkatuta. Honek aipatu zion Spainiako Defentsa Ministerioaren liburutegi birtualean 1939an 153. Langileen batailoian (egoitza Auritzen eta Orreagan zuenak) gertatutako hilketa bati buruzko sumarioa zegoela.

Espedientea kontsultatu ondoren, egiaztatu da Marcelino Boza Martínezen hilketa izan zela, 1939ko abenduaren 1ean gertatutakoa, eta haren bigarren abizena batzuetan Martin dela ageri da, Badajozeko probintziako Valencia del Ventosokoa. Zortzi Milekoen Zutabeen parte hartu zuen, matxinatutako tropen etorreraren aurrean extremadurarren exodorik handiena. Plasenciako (Cáceres) eta Lermako (Burgos) presoen esparruetan egon zen atxilotuta, eta handik Auritzera eraman zuten, bideak irekitzeko eta metrailadore habietarako lurrik prestatzeko lan behartuak egitera.

Heriotza ez zen Aurizko Erregistro Zibilean jaso, udal artxiboan lurperatzeko baimeneskaera baino ez da ageri.

Nafarroako Gobernuko Herritarrekiko Harremanetako Departamentuko Bake eta Bizikidetzarako Zuzendaritza Nagusia-Memoriaren Instituari informazioa eman ondoren, bere izena 1936-1939ko gerraren biktima gisa inskribatu da.

Bere ustez, udalerriarekin zerikusia duten hildakoen oroimenez monolitoa inauguratu eta bost hilabetera eraildako beste pertsona baten berri izateak erakusten du 1936ko gerran gertatutakoari buruz ezjakintasun handia dagoela gaur egun, eta eragin zituen zauriak gezurretan itxita daudela.

Txostenean dagoen dokumentazioaren arabera, Udalbatzak honakoa erabaki du:

1.- Eskerrak eman nahi dizkiogu Orreaga Oskotz Egiari gure herriarekiko erakutsitako begiruneagatik Marcelino Boza Martínezen hilketari buruzko informazioa eman baitu, 1939ko abenduaren 1ean herri honetan gertatua.

2.- Bakegintza eta Bizikidetzarako Zuzendaritza Nagusiaren hurrengo deialdiaren monolitoaren plaka handitzeko proiektua aurkeztea eta Memoriarik ezaren Kontra argitalpenaren eranskin bat inprimatzea.

3.- Akordio hau Valencia del Ventoso (Badajoz) Udalari hitzez hitz igortzea, jakinaren gainean egon dadin eta senide edo hurbilekoei jakinaraz diezaien.

4.- Akordio hau Extremadurako elkartea memorialistei hitzez hitz bidaltzea, jakinaren gainean egon daitezzen eta ondorioak izan ditzan. Era berean, Frantziara ihes egin zuenean, Julián Cantero Molina, Quintana de la Serenakoa (Badajoz), 1952ko uztailaren 7an udal kartzelan hil zela eta herri honetako hilerrrian ehortzi zutela eta bere izena 1936an altxatutako memorian agertzen dela jakinaraztea.

5.- Bakearen eta Bizikidetzaren Zuzendari Nagusiari erabaki honen berri ematea.

## **7.- BATZARRE EGITEKO DATA ONARTZEA**

Irigaray Osas alkateak proposatu du batzarrea irailaren 6an, ostiralean, 19:00etan egitea. Udalbatzak erabaki du aho batez batzarrea irailaren 6an, ostiralean, 19:00etan egitea.

## **8.- 2025eko TOKIKO FESTA ONARTZEA.**

Irigaray Osas alkateak hartu du hitza eta jakinarazi du Aurizko tokiko festa abenduaren 6an dela, San Nikolas eguna, baina egun horretan ere konstituzioaren eguna ospatzeko dela eta tokikoa beste egun batera pasatu behar dela Nafarroako Gobernuari jakinaraziz. Hortaz eta udal langileekin hitza eginda, 2025eko abenduaren 5ean izatea proposatu du.

Udalbatzak erabaki du aho batez 2025eko tokiko festa eguna abenduaren 5a izatea eta Nafarroako Gobernuari jakinaraztea.

## **9.- EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK ONARTZEA**

Irigaray Oses alkateak jakinarazi du eskualdeko udal gehienek euskaltegira doazenentzako dirulaguntzak ematen dituztela. Auritzen ez dagoenez, euskararen ordenantzaren 29. Artikulua ikusita eta herrian euskara normalizazio prozesuan dagoenez, proposatu du euskara ikasteko dirulaguntzak arautuko dituzten oinariak onartzea.

Guztiak ados egonik, aho batez erabaki da euskara ikasteko dirulaguntzak arautzen dituzten oinariak onartzea eta auritzarrei jakinaraztea.

### *EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK*

*Aurizko Udalak euskara ikasteko dirulaguntzak emanen ditu honako oinarriei jarraiki:*

#### *OINARRIAK:*

##### *3. XEDEA*

*1. 1. Lagunten helburua da euskara ikasteak sortzen dituen gastuen zati bat finantzatzea.*

##### *4. BALDINTZAK:*

*2.1. Eskatzaileari dagozkionak*

*Euskara ikasteko dirulaguntza eskatzeko honako baldintzak bete behar dira:*

*d) 16 urtetik gorakoa izatea*

*e) Herrian erroldaturik egon eta bertan bizi urteko 12 hilabeteetan*

*f) Klasera %85etik gorako asistentzia izatea*

*Herri-administrazioen bateko langileak izanik, euskalduntze-plan berezieta sartuta dauden herritarrek ezin izango dute diru-laguntzarik jaso.*

##### *2.2. Ikastaroak:*

*Ikastaro estentsiboak zein trinkoak, barnetegiak, autoikaskuntza eta abar diruz lagunduko dira, aurreko urteko uztailletik deialdiaren hilera arte egindakoak.*

*Eskatzaileek bi deialditan bakarrik jaso ahal izango dute laguntha maila bereko ikastaro baterako. Hau da, bigarren aldiz jaso ahal izango da laguntha, aurretik diruz lagundutako maila batengatik, baldin eta eskatzen den gutxieneko bertaratzea egiaztatzen bada (klase-ordu guztiak % 85).*

## **3. DEIALDIA ETA ESKATZAILEAK**

*Interesa dutenek irailaren 30a baino lehen aurkeztuko dituzte eskaerak Aurizko Udalean. Epea luzaezina izango da eta epe horretatik kanpo ez da eskaerarik onartuko.*

### *4. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK.*

*- Laguntha eskaeraren eskabidea. Eredua udaletxean eskatu eta /edo bete ahalko da.*

*- Erroldatze eta bizi izanaren ziurtagiria.*

- *Ikastaroa antolatzen duen entitatearen ziurtagiria, ikastaroaren baldintzak zehazten dituena: iraupena, maila, ordu kopurua eta ikastaroaren kostua.*
- *Matrikularen ordainagiria (banketxeak luzatua), matrikularen %100 ordainduta dagoela adierazten duena.*
- *Diru-lagunza sartu nahi den banku-libretaren lehen orriaren fotokopia.*
- *Euskaltegiak emandako bertaratze-ziurtagiria. Ziurtagiri berean gainditutako maila edo mailak agertu beharko dira.*
- *Langabeek Gizarte Segurantzak emandako lan-bizitzaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute. Langabezia-txartelaren kopia ez da egiaztagiri gisa onartuko.*

*Dokumentu guztiak originalak izango dira edo bestela udaletxeen kaukotuak. Eskatzaileen datuak abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera tratatuko dira.*

## 5. DIRULAGUNTZEN KOPURUAK

- 5.1. *Dirulagunza matrikularen %33 izanen da.*
- 5.2. *Langabezian egonez gero, lagunza matrikularen %50ekoa izango da. Halakotzat hartuko dira eskaera egin aurreko urtean gutxienez sei hilabete langabezian egon direnak.*
- 5.3. *Edonola ere, ikasleak ez du 250 euro baino gehiagoko laguntzarik jasoko deialdi bakoitzean, egin dituen ikastaroen kopurua edozein dela ere.*
- 5.4. *Lagunten zenbateko osoak aurrekontuetan deialdirako erreserbatutako diru-izendapena gainditzen badu, hainbanaketa eginen da ezarritako baldintzak betetzen dituzten deialdiaren onuradunen artean.*
- 5.5. *Lagunza hau eta beste batzuk, horrelakorik egonez gero, ez dira inoiz matrikularen %80 baino gehiago izango, proportzionalki hainbanatuz emandako zenbatekoak portzentajea gainditzen badu.*

## 6. EBAZPENA, JAKINARAZPENA ETA ORDAINKETAK

- 6.1. *Eskatzaileak diru-laguntzaren %100 jasoko du Aurizko Udalak aldeko txostena egin ondoren.*
- 6.2. *Ebazteko gehieneko epea hilabetekoak izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik hasita.*
- 6.3. *Bekak emateari buruzko ebazpena Aurizko Udaleko iragarki oholean argitaratuko da.*
- 6.4. *Emandako dirulaguntzaren ordainketa hilabeteko epean egingo da, eskolen %85era edo gehiagora joan izana egiaztatzen duen agiria aurkezten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.*

*6.5. Aurizko Udalean laguntzaren onuradunak zerbait ordaindu gabe duela ikusten bada, jaso beharreko zenbatekoa deskontatuko zaio ordaindu ez duenari.*

*6.6. Ebazpen horrek administrazio-bidea amaituko du, eta haren aurka, errekurso hauetako bat aurkez daiteke, hautara:*

*Administrazioarekiko auzi-errekursoa, Administrazioarekiko auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik aitzina.*

*Gora jotzeko helegitea, Nafarroako Auzitegi Administratiboaren aurrean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo hilabetearen barnean.*

*Berraztertzeko errekursoa, egintza zein organok burutu eta horri zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik aitzina.*

## **7. ESKATZAILEEN BETEBEHARRAK**

*Diruz lagundutako ikastaroetan izandako aldaketa garrantzitsuak Aurizko Udalari nahitaez jakinaraztea.*

*b) Ebaluatzaileen zeregina erraztea.*

*Diruz lagundutako ikastaroek beste erakunde baten lagunza ekonomikoa jasotzen badute, berehalaka jakinarazi beharko zaio Aurizko Udalari.*

## **10.- ELURRA KENTZEKO BALDINTZA PLEGUA ONARTZEA.**

Irigaray Osés alkate jaunak hartu du hitza eta jakinarazi du, iaz elurra garbitzeko lanen esleipena luzatu ondoren, bidezkoa dela 2024/2025, 2025/2026 eta 2026/2027 neguko denboraldietarako esleipena berriro ateratzea, eta aurreko denboraldiko baldintza berak onartzea proposatu du, nahiz eta eskaintzaren oinarritzko prezioa igo, 50€/h-tik, BEZA barne, 60€/h-ra.

Aho batez erabaki da honako baldintza plegua onartzea eta udalaren iragarki oholean eta web orrian argitaratzea, interesdunek jakin dezaten.

### ***ELURRA KENTZEKO LANAK ADJUDIKATZEKO BALDINTZEN PLEGUA***

1. *2024/2025, 2025/2026 eta 2026/2027 neguko denboraldietan elurra kentzeko lanak egin nahi dituzten guztiak aurkeztu ahal izango dira.*
2. *Bide nagusiek elurrik gabe egon beharko dute goizeko 8:00etarako, eta Udalak lehentasunak ezarriko ditu kaleak eta espazioak garbitzeko (zerbitzuak, sarbide zaileko etxebizitzak...).*
3. *Era berean, egunean zehar berriro garbituko da Udalak ezartzen dituen jarraibideen arabera.*  
*Halaber, beharrezkoa denean, ibilgailuak aparkatzeko lekuak elurrez garbituko dira.*

4. *Garbiketa-lanetako erantzukizun zibila esleipendunari dagokio.*
5. *Nolanahi ere, Udaleko langileek egiten dituzten oharrei jarraituko zaie, eta haiiek jarduketa eremu berriak, e.a. ezarri ahalko dituzte, baita egokitzat jotzen den beste edozein neurri ere.*
6. *Esleipen-aldia denboraldi honetarako izango da. Eskaintzaren oinarrizko prezioa 60 €/lan ordua izango da (BEZ barne), eta hilabetea amaitzean Udalari jakinarazi beharko zaio ordaindu ahal izateko.*
7. *Interesaturik dagoen orok 2024ko irailaren 27ko 10:30 baino lehen bere eskaintza aurkeztu beharko du.*
8. *Eskaintzak irailaren 27ko 14:00etan irekiko dira.*

## **11.- “YALA NAFARROA PALESTINAREKIN” DELAKOAK SUSTATU DUEÑ MOZIOA ONARTZEA**

Aho batez erabaki da YALA NAFARROA PALESTINAREKIN delakoak sustatu dueñ mozioa onartzea. Hona hemen:

### **NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUETARAKO MOZIOA [YALA NAFARROA PALESTINAREKIN]**

Kontuan hartuta:

- 76 urteko okupazioa, palestinarren lurren eta baliabideen lapurreta, eta hamarkadak dira Israelek apartheid sistema ezarri zuela;
- etengabeko genozidioa prozesu historiko batean txertatzen da, Palestinaren legez kanpoko okupazioa eta bere lurrardearen murrizketa gero eta handiagoa oinarri hartuta. Horri esker, politika edo continuum batzuk garatu ahal izan dira apartheid, segregazio, bantustanizazio [01] estrategia beraren barruan, zigor kolektiboak etengabe ezartzeko eta herri, etnizidio eta genozidio baten deuseztapena gauzatzeko, oraingoan mundu guztiaren bistan, Israeli bere planarekin jarraitza eragotzi gabe;
- Israelek ez ditu aintzat hartzen eta ez ditu betetzen sistematikoki Nazio Batuen Ebazpenak, bai eta Nazioarteko Justizia Gorteak 2024ko maiatzaren 24an emandako agindua ere, zeinaren arabera **«Israeli agintzen baitio Gazako erasoa berehala gelditzeko eta Gazako sarrera guztiakirekita edukitzeko eta ikerketa-batzorde bati sartzen uzteko»;**
- Nazioarteko Justizia Gortearen, udal honen (edo kontzeju honen) neurri hauek betetzen direlaiziertzeko estatu sinatzaile guztien betebeharra:

- Herri palestinarrari elkartasuna adierazten dio eta bere eskubideen aitortza babesten du.
- Espainiako Gobernuari eskatzen dio:
  1. **Gazako zerrendan berehalako su-eten iraunkorra** eska dezala nazioarteko instantzia diplomatiko guzietan.
  2. NBEk korridore humanitarioak irekitzea bultzatza dezala, elikagaiak, sendagaiak eta bizitza duina izateko behar den guztia Gazan sar dadin. Israelek sarrera legez kanpo blokeatzen jarraitzen du gaur egun, nazioarteko legezkotasuna argi eta garbi urratuta.
  3. **Israeli armak eta petrolioaren berehalako enbargatzea**, Gazako populazio zibilaren aurka erabiltzea saihesteko, NBEren Lurralde Palestinar Okupatuen Errelatore Bereziak EBri eskatutakoarekin bat etorri. [02] Israeli armak erostea eta saltzea eten dezala, genozidioak, okupazioak eta apartheidak irauten duten bitartean, herrialde honek palestinaren aurka egindako ankerkeriak ikusita eta Europar Batasunari eska diezaiola Israeli armen eta teknologia militarraren salerosketa eteteko.
  4. Israeli, potentzia okupatzaileari, eska diezaiola **suntsitutako palestinaren etxebizitzak eta azpiegitura zibil guztiak berreraikitzeo**, bai eta milaka zibil palestinari eragindako hilketa, zauri eta traumen **osasun-gastuak eta kalte-ordinak ordaintzeko** ere.[03]
  5. Nazioarteko Zigor Auzitegiko fiskalak adierazi duenez, «Israelek nahita eta sistematikoki kendu dizkie Gazako biztanleria zibilari gizakien biziraupenerako ezinbestekoak diren objektuak». Beraz, Nazioarteko Zigor Auzitegiari eta Nazioarteko Justizia Gorteari laguntza handiagoa ematea eskatzen dugu, Israelgo Gobernua eta Gazan 40.000 pertsona baino gehiago hil eta desagertu izanaren arduradun nagusiak auzipetzeko . Horietako gehienak emakumeak eta haurrek dira, Zisjordanian eta Jerusalem ekialdean ugaritu den indarkeria eta lurren eta etxebizitzentzat lapurreta ahaztu gabe. Nazioarteko Zigor Auzitegiak adierazi duenez, «Israelek nahita eta sistematikoki kendu dizkie Gazako biztanleria zibilari gizakien biziraupenerako ezinbestekoak diren objektuak». Ildo horretan, Espainiako estatuak Hegoafrikak eta Israelen aukako kereila babesten duten besteestatu batzuek Nazioarteko Justizia Gortean egindako demandarekin bat egin izana ospatzen dugu , eta urrats horrekin batera genozidioa, okupazioa edo apartheid-a eragozteko eta inola ere ez laguntzeko politika aktiboak ere eskatzen ditugu. [04].
  6. **1967ko gerraren aurreko mugak dituen estatu palestinarra** onartzeaz gain, herri palestinarraren **autodeterminazio-eskubidea onartzea**, palestinarrek beren mugak eta etorkizuneko antolaketa zehaztu ahal izan ditzaten NBEk babestutako bidezko negoziazio batean, eta **errefuxiatutako biztanle palestinarrei itzultzeko eskubidea** aitortzea, Nazio

Batuen Batzar Nagusiaren 194., 242. eta 3236. ebazpenek zehazten duten bezala.

7. Espainiako enpresei eska diezaiela **Palestinako lurralteko okupatueta datorren salgaien jatorria nahitaez adierazteari buruzko legeria betetzeko.**

8. **Europar Batasunaren eta Israelen arteko Elkartze Akordioaren aurka egin dezala**, lehentasunezko hitzarmen hori nabarmen ez betetzeagatik, Israelek ez baitu betetzen giza eskubideak eta printzipio demokratikoak errespetatzeko konpromisoa. Nazioarteko Justizia Gortea eskatzen duen bezala eta Irlandaren eta Espainiaren kontsultaren ondoren Europar Batasunak informatu gabe jarraitzen duen bitartean, kautelazko neurriak edo prekautelarrak atzerapenik gabe hartzea. [05]

9. **Israelekin harremanak haustea**, nazioarteko legedia eta giza eskubideak sistematikoki urratzen dituelako. Israelek Giza Eskubideen eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren arloko nazioarteko legeak urratzen jarraitzen duen bitartean eta genozidio, apartheid eta okupazio ekintzei eusten dien bitartean mantendu beharko da harremanen haustura hori.

— Giza Eskubideen eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren arloko nazioarteko legeriarekinkonprometitzen da. Hori dela eta, aplikatzeko den araudiak ahalbidetzen duen neurrian, **ez dulaguntza ekonomikorik emango, lokalen lagapenik, aitorpenik edo harrera publikorik egingo Israel eta sionismoa ordezkatzen duten pertsonek, elkarrekin edo enpresek egindako edozein jarduera ekonomiko, kultural, kirol edo ludikori**, jarduera horiek Palestinaren aurkako apartheid, okupazio eta genozidioa gaitzesten badute edo jendaurrean adierazten ez badute.

— Araudi aplikagarriak ahalbidetzen duen neurrian, **bere eskumeneko kontratacio publikoko prozesuetan okupazioaren negozioarekin harreman ekonomikoak, babesletzak edo estrategikoak dituzten pertsonekin kontraturik ez egiteko konpromisoa hartzentzu du.**

— Nafarroako Gobernuari eta Nafarroako Parlamentuko talde parlamentarioei eskatzen die azterditzatela kontratacio publikoaren araudian aldaketak, **Giza Eskubideen arloan nazioarteko legezkotasuna babesteko klausula eraginkorragoak sartzeko**, Giza Eskubideen urraketa larrieta inplikatutako enpresekin kontratuak egitea debekatzeko.

— Ahal den neurrian, laguntza emango die **UNRWARI eta Palestinako herriaren alde lan egiten duten giza eskubideen eta gizarte zibilaren beste erakunde batzuei**, eta leku emango die, ahal denean, giza eskubideen defendatzaleei eta genozidioaren, apartheidaren eta palestinar herriaren okupazioaren lekuko zuzenei. [06]

2º.- Parlamentuari, Nafarroako Gobernuari eta YALA NAFARROA PALESTINAREKIN delakoari erabakiaren berri ematea.

**Gai zerrendatik kanpo Irigaray Oses alkateak proposatu du eskolako parte baten erabilera onartzea**

Irigaray Osés alkate jaunak hartu du hitza, eta jakinarazi du Martinez zinegotziak eta berak bilera bat izan zutela Aranzadi Elkarteko Oihane Mendizabalekin eta Suberri Matelorekin, eskolaren zati bat Zalduako aztarnategiko aztarna arkeologikoen erakusketa-gelara bideratzeko aukeraz hitz egiteko; izan ere, aurtengoa izanen da eskolako azken ikasturtea. Udalbatzak erabaki du aho batez gaiaz hitz egitea eta onartzea.

## **12.- ASKOTARIKO INFORMAZIOA**

Irigaray Osés alkateak hitza hartu du eta honako informazioa eman du:

### **Cederna-Garalurrekin hitzarmena sinatzea**

Azken ohiko bilkuran erabaki zen bezala, Cederna-Garalurrekin hitzarmena sinatu da eta kultur etxeko lanen inguruko eskaintzak aurkezteko prozedura ireki da.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Pirinioko Planaren dirulaguntak ukatzea**

Udalak maisu-maistren etxeen proiektua idazteko diru-lagunza jasotzeko aurkeztutako eskaerak ez du puntu nahikorik lortu Pirinionetako Planarekin lotutako ekintzen deialdian. Beraz, Udal honentzat proiektu hau funtsezkoa dela kontuan izanik, beste bide batzuetatik lan egiten jarraituko dugu.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **Belaunaldien arteko parkerako laguntza**

Belaunaldien arteko parkeko jardueretarako hirigintza-arloko proiektu berritzaileen deialdirako eskaerak nahikoa puntuazio lortu du, eta 45.000 euro eman dira aurreikusitako jardueretarako.

Udalbatza jakitun da.

### **San Juan festak**

Herriko jaietan eguraldi aldakorra izan arren, giro ona, ekitaldietan izandako parte-hartze handia eta maiordomoen lana izan ziren jaietako gauzarik aipagarrienak. Nabarmentzekoa da, halaber, inguruko hainbat tokitako jende asko etorri dela. Azkenik, gazteen implikazioa eta parte-hartzea eskertu nahi dugu.

Udalbatza jakitun da.

### **Pirinioko Mahaia:**

Mahaieren azken bileretan hainbat puntu lantzen ari dira Toki Administrazioko eta Despopulazioko Zuzendaritza Nagusiarekin batera:

- Eskolen defizita finantzatzea; Udala izango da horren onuraduna.
- 2025eko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan sartzeko proiektuak
- Despopulazio Legearen aurreproiektua; horretarako, mahaiaik batzordeak deituko ditu, ekarpenak egin ahal izateko. Udalbatzako kideei eta, oro har, herritarrei bilera horietan parte hartzeko gonbita egiten diet.

Udalbatza jakitun da.

### **Eskulagintza Azoka:**

Joan den abuztuaren 15ean artisau-azoka tradizionala ospatu zen, bisitari eta artisau ugari bildu zituenta.

Udalbatza jakitun da.

### **Soroluzeko pasabidea**

Ingurumen Departamentuak baimena eman duela Soroluzeko pasabidea jartzeko eta Ebroko Ur Konfederazioaren baimena falta dela. Laster kenduko dira hormigoizko blokeak, EUKak gainbegiratuta, Ingurumeneko teknikariek eta EUKak egin zuten bisitan erabaki zen bezala.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Kanaleburuako lanak eta mendebaldeko bideak**

Jakinarazi da Kanaleburua karrikako eta Dana euriteak kaltetutako mendebaldeko bideetako proiektuak idatzi dituzten Guallart eta Infante ingeniarien bisita izan ondoren, irailean edo urriaren hasieran hasiko direla bi proiekuetako lanak

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Herriko aparkalekuak**

Jakinarazten da ohiko bilkuran onartu dela hiriko hainbat tokitan aparkalekuak mugatzea, seinaleztapen horizontala eta bertikala jarri direla, eta horren guztiaren berri eman zaiela herritarrei bando baten bidez. Hori betetzen ez dela ikusita, lanean jarraituko da, Guardia Zibilarekin batera, bete dadin.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **2024ko indusketa kanpaina**

Jakinarazi da uztailean Aranzadiko boluntarioak, horien artean herriko eta eskualdeko bizilagunak, Zalduan aritu zirela indusketak egiten. Lanak iraun bitartean eskolan hartu dute ostatu. Boluntario guztiei egindako lana eskertu nahi zaie.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Abeltzaintza azpiegiturak**

Azkeneko asteetan 2023-2024 epealdiko abeltzaintza azpiegituren proiektuan jasotako lanak egiten ari dira.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **Frontoiko lanak**

Azkenik jakinarazi da, surrekontuen zuzenketa eta Lurralde Kohesio Departamentuaren oniritzia lortu ondoren, iraileko bigarren hamabostaldian frontoia eraberritzeko lanak hasiko direla, Construcciones Leache enpresaren eskutik

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Jarraian, Azanza zinegotziak jakinarazi du abuztuaren 6an Jesús María Rodriguez Toki Administrazioko eta Despopulazioko zuzendari nagusiarekin eta Garraioko zuzendari nagusiarekin egin zuen bilera, Nafarroako Gobernuak egingo duen linea erregularren lizitazio berriari buruzko informazioa emateko. Proposamen berria hobea da Auritzerako, autobusaren urtaroko izaera desagertzen baita, eta horregatik ados agertu zen..

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **13.- ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Ez daude.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez gero, bilkurari bukaera eman zaio egun bereko 20:30ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.

